



ZIURTAPEN PRAKTIKEN DEKLARAZIOAREN EGUNERATZEA

Erreferentzia: IZENPE-ACTUALIZACIÓN DPC
Bertsio zkia.: v 5.0
Data: 2013ko martxoaren 21a

© IZENPE 2013

Dokumentu hau IZENPErena da. Osotasunean soilik erreproduzi daiteke.

■ Beato Tomás de Zumárraga
71 - 1ª Planta
01008
Vitoria - Gasteiz

www.izenpe.com
info@izenpe.com
Tel.: 945 017 490



Informazio orokorra

Dokumentuen kontrola

Izenburua:	Ziurtapen Praktiken Deklarazioa
Bertsioa:	5.0
Onartze-data:	2013/03/21
Erabilitako dokumentazioa:	ZPD 4.9
Egilea(k)	IZENPEko Aholkularitza Juridikoa IZENPEko arlo teknikoa
Aldaketak/Iruzkina	5.0 bertsioa 4.9. bertsioaren eguneratzea da



IZENPE, Saren Ziurtapen Praktiken Deklarazioren 9.11. epigrafearen arabera, aldaketak egin daitezke Ziurtapen Praktiken Deklarazioan. Aldaketa horiek dokumentu honetan jaso badira ere, IZENPE, SAK ematen dituen ziurtagiriak eskatzen edo erabiltzen badituzu, edo ziurtagiri horietaz fidatzen bazara, nahitaez ezagutu beharko duzu oso-osorik Ziurtapen Praktiken Deklarazio eguneratua.



1. SARRERA_Egokitzapena

Zuzenketa:

- IZENPEk Ziurtapen Praktiken Deklarazioaren bertsioa eguneratu du, orain arte RFC 2527 Internet X.509 Public Key Infrastructure Certificate Policy and Certification Practices Framework-en oinarritzen zen, eta orain RFC 3647an oinarritzen da.
Bi motatako aldaketa dira:
 - Egituraren aldaketa, legeriara egokitzeko.
 - Aldaketa teknikoak, gutxienekoak eta gehigarriak.
- Etetea ezabatzen da (ezeztatzea soilik izango da posible) eta online eta telefono bidez ezeztatzeko zerbitzua gaitu da. Zerbitzu horri esker, telefono bidez identifikatuta, berehala ezeztatu ahal izango da, eta, online identifikatuta, 24 ordutara ezeztatu ahal izango da.
- Ziurtagiri onartuak jaulkitzen dituzten CAen kasuan aplikatu daitezkeen politika eman da aditzera: QCP Public+SSCD.
- Barnean hartzen da:
 - Hornitzaile guztiak segurtasunaren arloko araudia bete beharra.
 - Segurtasun Batzordearen eta ZPDa berraztertze arduradunaren erantzukizunak.
 - Oinarritzko CAren eta mendeko CAren gako erabileren deskribapena.
 - HSMak garraiatzeko, biltegitratzeko eta kentzeko protokoloaren erreferentzia.
 - IZENPEk une oro sinadura sortzeko gailuen gaineko kontrola mantentzen duela dioen adierazpena –betiere IZENPEk azken erabiltzailearen gakoak sortzen dituenean–.
 - IZENPEk jarduerari uzten badio, hirugarren batzuen edozein baimen amaitutzat joko dela dioen adierazpena.
 - Azken erabiltzaileentzako erabilitako algoritmoak industriak onartutakoak izango dira eta egokiak izango dira sinadura onartuaren xederako, ziurtagiriaren indarraldia kontuan izanik.
 - Azken erabiltzaileen gakoak zaintzearen erantzukizunaren erreferentzia.